
The illustration shows a man with a large, curly brown beard and wide, surprised eyes. He is wearing an orange jacket over a blue shirt. He holds a large, rectangular, aged piece of paper in front of his face. The paper has the author's name 'MARIASUN LANDA' at the top, followed by the title 'EZIN EZETZ ESAN' in large, bold letters. A blue stamp with the word 'EZETZ' is stamped diagonally over the title. The background is a colorful, cartoonish town with various houses, windows, and trees.

MARIASUN LANDA

**EZIN**  
**EZETZ**  
**ESAN**

erein  
**AUSKA** 



Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenez kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2023ko urrian*

Azala eta barruko irudiak:  
Andrea Prosper Morán

Maketazioa:  
Erein

© Mariasun Landa

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-915-4

L.G.: D 950-2023

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-posta: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

MARIASUN LANDA

# EZIN EZETZ ESAN

Ilustratzailea: Andrea Prosper Morán

DONOSTIAN, 1980AN IDATZIA  
ETA 2023AN BERRIKUSIA

erein AUSKA 

idazlea

# mariasunlanda



Egia esaten badizut, ez dakit ziur  
nor naizen.

Batzuetan idazle, besteetan irakasle.

Egia esaten badizut, ez dut gogoan  
zenbat liburu argitaratu dudan,  
euskaraz aurrena, itzulita beste pila bat.

Egia esaten badizut, nahiko sari eta txalo  
eman didate urteetan,

bertakoak asko,

kanpokoak ez gutxi.

Gaur, ordea, gauza batez nago ziur:

ipuin hau atsegin baduzu zuk

poz pozik jarriko naizela ni.

ilustratzailea  
andrea prospermorán



Iruñean bizi den artista madrildarra, komikian eta ilustrazioan zentratuta dabilena.

Ibilbide oparoa izan du sare sozialetan Marrakatu ezizena baliatuta. Lehiaketak, fanzineak eta kanpaina batzuetan ibili ostean, *Ezin ezetz esan* da ilustratu duen aurreneko liburua.



## BEHIN BATEAN

**H**erri berezi bat zen hura. Oso txikia izan arren, bakar-bakarrik irauten zuen oihan trinko baten erdian, ozeano berde eta arriskugarri bateguz inguraturiko uharte baten antzera. Eta han, besteengandik aparte bizi ziren bizilagun haien artean inoiz ezagutu ez den fenomeno berezi bat gertatu zen: EZ hitza erabat desagertu zen jendearen aho eta



bihotzetatik. Ez zuten EZ bezalako hitzik ezagutzen, ezta haren beharrik sentitu ere.

Izan ere, herri hartako Agintearen Jaurregira jo behar zen halako bitxikeria argitu ahal izateko, hango liburu zaharkitu eta marduletan azaltzen baitzen EZ hitzaren desagerpenak ekarri zuen borroka latza, EZ hitza baztertzek menderik mende ekarri zituen hilketak







eta gatazkak. Hautsez beteriko liburu zahar haietan azaltzen zen nola garai batean ezeztaren aurkakoeak lortu zuten herri hura guztiz menderatzea, nola denek Baitar bihurtu behar izan zuten eta nola EZ hitz madarikatua paper, liburu, eta batez ere, jendearen aho-buruetatik errotik ezabatzea lortu zen.

Baina, gure istorioa hasten den garaian, herri hartako inori ez zitzaion burutik pasatzen atzera begiratzea, Agintearen Jauregira hurbiltzea, are gutxiago bere Historia ezagutzea. Batetik, hura egitea ez zela komeni bazekitelako eta bestetik, zoriontsu bizi zirelako modu hartan, ezertxori ezetz esan gabe, EZ hitza egon zitekeenik susmatu gabe.

—Aurten, herriko gastuak hazi direnez gero, zergak handituko dira. Ados al zaude-te? —galdetzen zieten noizbehinka agintariak herritarrei.

—Bai! —erantzuten zuten herritarrek aho batez.

—Gaur, etxeko lan gehiago emango dizuet —esaten zien maisuak ikasleei—. Ondo iruditzen al zaizue?

—Bai! Bai! —erantzuten zuten haurrek.

—Baloia utziko al didazu jolasteko? —galdetzen zion arrebak nebari.

—Bai! Bai! —erantzuten zion nebak.

—Maite al nauzu? —galdetzen zion mutil batek bere gustuko neskari.

—Bai! Maite zaitut, bai! —erantzuten zion neskak.

Beraz, ez zegoen herrixka hartan ia arazorik. Urteak joan, urteak etorri, mundu zaratatsutik kanpo bizi ziren herri hartako biztanleak.

Agintariiek harro-harro ziotenez, paradisuaz zirudien herri hark.



## GIZON ARROTZA

**B**aina egun batean, gizon zarpatsu, go-  
setu, ahul bat azaldu zen oihanean...  
Arnasa hartzea bera ere kosta egiten  
zitzaion gizajoari. Mila gorabehera pasatu  
ondoren, herrixka hartan aurkitu zen. Ahu-  
lezia handiz, etxe batera gerturatu zen:

—Aizu, andre, ur tanta batzuk emango al  
zenizkidake? —eskatu zion etxekoandreak—.  
Egarriz hiltzeko zorian nago eta.

—Bai, gizona, bai! —erantzun zion andreak, eta iturriko ur fresko gardena eskaini zion. Basokada bat ur eder edan ondoren, bi-deari jarraitu zion arrotzak.

Beste etxe bateko atea jo zuen, eta irten zitzaion gazteari beldurrez galdetu zion:

—Aizu, gazte, bidaia luzea eta oso latza egin dut. Gosez nago, gosez. Jateko zerbait emango al zenidake?

—Bai, bai, noski! —erantzun zion gazteak irribarrez. Eta sukaldeko mahaian eseri eta janari goxoak eta elikagarriak eskaini zizkion.

Gure gizona indarberritu zen. Bere buruari begiradatxo bat egin ondoren, konturatu zen zikina zegoela, jantziak zarpaildurik, eta oso narrasa. Baina beste etxe batera hurbildu eta esan zuen:

—Arrotza naiz eta laguntza eske nator... Emango al zenizkidakete jantzi garbiak, mesedez?





—Horixe baietz! —erantzun zioten etxe hartakoek. Eta galtzak eman zizkioten, baita azpiko arropak, alkandora eta oinetakoak ere.

Harrituta zegoen gure gizona. Zerua ote zen herrixka hura? Nolako borondatea! Nolako eskuzabaltasuna, aurpegi atseginak, irribarre argiak! Horrelako gogoetak buruan bueltaka zituela, konturatu zen kalean aurrera gizon-emakume batzuk zetozela beregana.

«Hara! Hauek herriko agintariak izango dira eta herritik botako nautel!», pentsatu zuen bere artean.

Gizon arrotza erne eta urduri jarri zen.